

3. Boletina

2012ko ekaina

LAN OSASUN BOLETINA

AURKIBIDEA:

- 1. PREBENTZIO DELEGATUEN FORMAKUNTZA IKASTAROAK KOLOKAN**
- 2. ARRISKUA HAURDUNALDIAN ZEHAR PRESTAZIOA: LAN EPAITEGIETAN ERREALITATE**
- 3. ERGONOMIAREN BILA ERKOREKAN**
- 4. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO EKAINA**

3. Boletina

2012ko eleira

1. PREBENTZIO DELEGATUEN FORMAKUNTZA IKASTAROAK KOLOKAN

Prebentzio-delegatuen prestakuntzarako oinarri legala “EAEko lanbidearteko lan-osasun eta arriskuen prebentziorako Akordioa”, da 1997ko abenduaren 11n ELAk, LABek, CCOOek, UGTk eta Confedebak sinatu zutena. 48 orduko oinarrizko formazio bat da, prebentzio-delegatuei beren egitekoa bete ahal izateko gaitzen dituen.

Bada, iazko irailean Osalaneko Kontseilu Nagusiak (ELAk etenda dauka bertako parte hartzea) prestakuntza hori geldiaraztea erabaki zuen, teoriarik baliabide gabeziaren ondorioz (Hobetuzek ikastaro hauek diruz laguntzen ez zituelako) eta zein prozedura erabili ez zekitelako. ELAk eta LABek erabaki hau salatu ostean, bi egunetara ikastaroak berriro hasi ziren. Haatik, etorkizuna kolokan dago. Akordioaren arabera Osalan da oinarrizko prestakuntza planaren arduraduna, baina dioenez, Lanbidek -erakunde honek Hobetuzen lekua hartu du enplegurako eskaintza-prestakuntza finantzatzeari dagokionez- ez du dirurik ematen, ezta jakinarazten ere ikastaroak kudeatzeko zein prozedura erabili behar den.

Horrenbestez, ikastaroak egiten ari dira eta ELA prebentzio-delegatuei formazioa ematen ari zaie, beharrezko ikastaroak sustatzen eta antolatzen jarraitzeko konpromisoa hartu baitzuen sindikatuak.

Baina horrek ez du esan nahi arriskua desagertu denik. Osalan, Hobetuz zein Lanbide alde batera utzita, benetako arduraduna Eusko Jaurlaritzak da, eta aldaketa egitea erabaki zutenak, bai Osalango Kontseilu Nagusian, bai Lanbideko Administrazio-Kontseiluan. Jaurlaritzak bere 2013-2017rako Segurtasun eta Osasunerako Plan Estrategikoan dio langileak, eta areago prebentzio-delegatuak prestatzea, enpresetako prebentzioa hobetzeko funtsezkoa dela. Horrela euren inkoherentzia eta gaitasun eza agerian geratzen da. Planak egiten dituzte eta mahaiak eratu,

2011ko Jaurlaritzako aurrekontuetako banaketa zuritzeko: 557.675 euro era orokorrean eta Osalango 200.000 euro gehiago gizarte-elkarrizketako mahaia garatzeko hitzarmenatarako. Hortxe dago prebentzioaren eta segurtasun-osasunaren benetako negozioa. Plan teorikoek ez dute ezertarako balio lan-osasuneko politika publikoak goitik behera aldatu ezean.

Beraz, hori da Jaurlaritza honek gaiarekiko duen borondatea eta konpromisoa. Hego Euskal Herrian pairatzen ditugun siniestralitate eta gaixotasun profesional maila ikusirik, ezin da onartu prestakuntza hori baztertzea, ezinbestekoa baita enpresetako lan-arriskuen prebentziorako. **Benetan uste dute zortzi hilabete behar direla egoera hau konpontzeko? Zer gertatuko da lanbidearteko akordioarekin? Gauza bat argi dago: ez dute errespetatzen, eta oraingoan ere kaltetuna langile-klasea da.**

2. ARRISKUA HAURDUNALDIAN ZEHAR PRESTAZIOA: LAN EPAITEGIETAN ERREALITATE

Haurdunaldi egoeran arriskua ematen den egoeratan aplikatu beharreko legeria martxan jarri zenetik, asko izan dira egoera horretan aurkitu diren emakume langileak. Erantzuna argia izan da, mutuek zuzenean atzera botatzen zuten eskaria edo haurdunaldiaren epe zehatza batera baldintzatzen zuten prestazioaren onarpena, eta beti ere, lan baldintza, postua eta langileak egiten dituen funtzioei baldintzatuta. ELAren gomendioa mutuaren jokaera denuntziaztea eta gizarte segurantzian aldi baterako ezintasuna eskatzea izan da.

Hori horrela, epaitegi ezberdinek ulertu dute langilearen eskaria legezkoa zela eta ezinbesteko pausutzat ondorengoak zehaztu dira:

1. Probari begira garrantzitsua da Osalanek edota INSLeke egindako txosten teknikoa izatea. Txostenak mutuak oinarri gisa hartutako irizpide medikuak, orain arte SEGOak (Espainiar Ginekologia eta obstetricia erakundea) ezarritakoak, zalantzan jartzea ezinbestea izango da. Honek langilearen lanpostua eta egitekoa kontutan izanda 18, 20 edo 22 asteak gutxieneko epe moduan ulertzen ditu.

Sententzien arabera, SEGOak ezarritako neurriak gomendio orokorrak bezala ulertu behar dira, kasuan kasuko azterketa zehatza ez egitea ahalbideratzen ez duelarik. Beraz, Osalan edo INSLak egin badu horren iritzia SEGOarengan nagusitu egiten da, gainera arrazoirik ez dago SEGOaren irizpidea INSLetik gailentzera.

2. 2. Arazorik ez langilea behin behineko ezintasun egoeran egon bada mutuak gomendatutako aurretiazko asteetan eta kontingentzia arrunta dela eta. 31/95eko Legeak , 26. artikuluan argi zehazten du enpresariaren betebeharra dela arriskua emakume zein fetuarentzat dagoen kasuetan lanpostua egokitu behar dela, ezinezkoa denean lanpostuz aldatu beharko da eta azken aukera moduan langilea ezintasun egoerara igaroko da.

Gehienetan enpresak bete beharreko txostenean, emakume langileak burutzen dituen funtzioak definitu, arrisku ebaluazioan zehaztutako arriskuak eta proposatutako neurri zuzentzaileen zerrenda zehaztu eta ondorio aurreko aukeren artean zein den posible zehaztu beharko litzateke. praktiken, enpresa gehienak langilea behin behineko ezintasun egoerara igarotzea proposatzen dute. Hori horrela izanik, EAEko Auzitegi Nagusiak 2006/12/12ko sententzian argi erabakitzen du “ langilea aurkituko litzatekeen babes eza, mutuak ez bailioke ezintasuna onartuko, ekiditea du helburu”.

Hori bai, mutuak gomendatutako haurdunaldiaren astea heltzean, kontingentzia arruntean oinarri duen ezintasunaren alta hartu eta jarraian mutuatik ezintasuna arrazoi profesionalak direla eta hartu beharko da

3. Behin erreklamazioa onartuta eta ezintasunaren arrazoa lan oinarria duela erabakita, lehenengo ezintasunaren datatik onartuko da prestazioa.

* Prestazioaren inguruan zalantzarik izatekotan begiratu “Arriskua haurdunaldiaren zehar” publikazioa, 2010eko maiatzakoa.

3. ERGONOMIAREN BILA ERCORECAN

2011.ko ekainan Uvesco taldeak Ercoreca supermerkatuak bere gain hartu zituen, eta horrenbestez, langileekin batera lan-osasun eta -segurtasun arloan zituzten arazoak ere. Ercorecako ELAko delegatuak aspalditik ari ziren salatzen kutxa-lerroetan aulkiak falta zirela, hainbat lanpostutan segurtasun oinetakoak eta zenbait zentrotan kutxetako zinta garraiatzailea ere. Arazo hauek guztiak Enpresako Segurtasun eta osasun komitean behin planteaturik eta elkarrizketarekin bakarrik irtenbiderik aurkitu ezinean, Osalanera jo zuten, baina hemen ere erantzun egokirik ez zieten eman; horregatik azkenean Lan Ikuskaritzara jo behar izan zuten. Ikuskariaren erantzuna honakoa izan zen:

Lanpostuan aulkien faltak lan arriskuen prebentzio arloan ez da inolako arauhaustea.

Jarri gaitezen gaian:

Kutxan lanaldi osoa egiten duten langileek 8 ordu ematen dituzte zutik postura aldaketarik egin ezinik, eta pisu "txikiekin" egindako mugimendu errepikakorrekin. Postura berbera mantentzeak, zutik edo eserita, 8 orduz gorputzaren parte baten muskuluak uzurtuta izateak, arazo fisiko ezberdinak dakartza, bereziki arazo muskulu-eskeletikoak. Ondorioz, arazo larrienak honakoak dira: zangoetako zirkulazio arazoak, lepo eta eskumuturreko tendinitisa, bizkarreko edo zerbikaletako mina. Baina horri pisu txikiko kargekin egindako mugimendu errepikakor eta gaizki egindako mugimenduak gehitzen badizkiogu (adibidez, bultzatzea, altxatzea edo karga poltsetan sartzea) beste hauek gehitu ditzakegu: ziatika, herniak, lunbalgia, artritisa, bizkarreko mina edota garaiz aurreko erditzea.

Dokumentazio asko eskuragarri dago gaur egun gorago aipaturiko baldintzetan lan egiteak ze arazo ergonomiko dakarren azaltzen duena (NTP 452, NTP 311, NTP 387, NTP 452). Badirudi, ordea, Ikuskariarentzako ez dela inspirazio iturri. ELAko delegatuak erantzunarekin pozik gelditu ez zirenez, Lan Ikuskaritzaren buruari kasua berriro irekitzea eskatu zioten eta beste inspektore bat jarri zieten. Azken honek enpresa bisitatu ondoren bere lankideak esandako justu kontrakoa ulertu zuen eta enpresari, kasu hontan Uvescori, 2013ko abendua baino lehen prebentzio ordezkariak planteatutako arazo hauek konpontzeko eskatu zion.

ELAko delegatuak jadanik parte hartu dute kutxetan jarriko diren aulkien hautaketan, eta 3 hiru dendatan proba egiten ari dira, gero pixkanaka beste guztietara zabaltzeko. Segurtasun oinetako eta sare-begizko eskularruen inguruan, enpresak berehala emango dituela esan du. Lan ikuskaritzan, lan osasunean irizpide bateratuen falta desesperagarria da. Honen aurrean, Ercorecako moduko prebentzio delegatuak behar ditugu, eskatutakoa lortu arte ez baitira gelditzen, aulkiak barne.

4. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO URTARRILA - MAIATZA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	11
GIPUZKOA	8
ARABA	5
NAFARROA	3
GUZTIRA	27

